

10. KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa balioan oinarritutako negozio-eredua da, eta gure helburua pertsonen **osasuna eta ongizatea sustatzea** da, elikadura osasuntsuaren bidez ohitura egokiak barneratuz eta bizi-kalitatea hobetuz. Hori lortzeko, gure proiektua planifikatzean, kontuan hartu behar dugu **kostuak pilatzen hasiko direla**, bai baliabide fisikoak, bai pertsonalak eta bai teknologikoak erabili behar ditugulako. Horregatik, hasierako fasean, aurrezki propioak erabiliko ditugu, eta



baita administrazio publikoek eskaintzen dituzten **diru-laguntzak** ere (Eusko Jaurlaritzaren, Estatuko programak), proiektua modu jasangarrian martxan jartzeko eta mantentzeko.

Gure jarduera batzuk online egingo diren arren, **lokal finko bat izatea ezinbestekoa** izango da tailerrak, ikastaroak eta saio praktikoak garatzeko. Hasieran ezin izango dugunez lokal bat erosi, Bilboko auzo egoki batean alokatuko dugu espazio bat, sukalde edo gela egokitua izango duena, **bezeroen parte-hartzea eta esperientzia praktikoa** bermatzeko. Lokala egokitzeko, **altzariak, sukaldeko materiala eta ekipamendua** erosi beharko ditugu, espazio eroso eta funtzionala sortuz. Era berean, **interneteko konexioa eta telefonia zerbitzuak** kontratatuko ditugu, online ikastaroak, komunikazioa eta webgunearen kudeaketa behar bezala bermatzeko.

Kostu finko nagusiak honako hauek dira: lokalaren alokairua eta mantentzea, internet eta telefonia zerbitzuak, webgunearen hostinga eta domeinua, langileen soldatak eta hasierako ekipamendu digitala (ordenagailuak, kamera, mikrofonoak, argiztapena). Langileen soldata profesional nagusientzat **finkoa** izango da, gure tailer eta ikastaroen kalitatea eta etengabeko laguntza bermatzeko. Enpresa sortzen dugun kideok, berriz, hasieran **irabazien arabera kudeatuko dugu gure soldata**, lehentasuna proiektuan berrinbertitzea izanik. Horrek aukera emango digu aurrezkiak eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko, etorkizunean egoera ekonomiko egonkorra lortuz. Etorkizunean, proiektua sendotzen denean, gure helburua da langileen soldata **finkoa izatea**, egonkortasun eta motibazio handiagoa bermatzeko.

Tailer eta ikastaroetan erabilitako **elikagaiak, material didaktikoa, jolas eta tresnak** bezero kopuruaren arabera izango dira. Halaber, marketin-kanpainak (publizitatea, sare sozialetako sustapena) eta irteera edo jarduera berezietarako **garraio gastuak** ere kontuan hartu behar dira. Kostu horiek, kopuruaren arabera aldatzen dira, beraz, **ordainketa errepikakorrek eta bolumen handiko gastuak** modu eraginkorrean kudeatu beharko ditugu. Gainera, tailer eta ikastaro bereziak antolatzeko beharrezkoak diren elementuak (adibidez, material gehigarria, dekorazio pedagogikoa edo higiene ekipamenduak) ere kostu aldagarri gisa kontuan hartuko ditugu.

Gure zerbitzuaren kalitatea eta segurtasuna bermatzeko, gure taldeko kideek **prestakuntza espezifikoa** jasoko dute. Prestakuntza hau barne hartzen du: elikadura osasuntsua, higiene arauak, tailerretan segurtasun neurriak eta lehen sorospenen oinarritzko ikastaroak. Prestakuntza horiek **hasierako kostuak** izango dira, ez baitira etengabe errepikatuko. Helburua da gure bezeroei esperientzia segurua eta kalitatezkoa eskaintzea, bai tailer presentzialean bai online saioetan.

Ikastaro eta erabiltzaile kopurua handitzen den heinean, **materialak kantitate handiagoan erosteko aukera** izango dugu, kostuak murriztuz eta ekonomia eskalaren abantailak aprobetxatuz. Halaber, **baliabide berak** (webgunea, eduki digitalak, profesionalak) hainbat zerbitzutarako erabiliko dira, kostuen eraginkortasuna handituz. Hedapen-ekonomiei esker, baliabide finko berdinak erabiltzen dira hainbat ikastaro eta online edukirako, eta kostu unitarioa murrizten da.

Laburbilduz, gure kostu-egitura **orekatua eta jasangarria** izatea bilatzen dugu, gure balio-proposamena garatzeko, bezeroei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko eta negozio-eredua epe luzera bideragarria izateko. Baliabideak eta kostuak modu eraginkorrean kudeatuz, gure enpresak bere helburu nagusia betetzea ahalbidetuko du: pertsonen osasuna, ongizatea eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzea.

Kostu mota / Jarduera	Gutxi gora-behera kostua / prezioa	Oharrak
-----------------------	------------------------------------	---------

Lokalaren alokairua eta mantentzea	700 €/hilabete	85 m ² -ko lokal bat Bilboko auzo egoki batean, tailerrak egiteko prest
Internet eta telefonia zerbitzuak	50 €/hilabete	Finetwork bidezko konexioa eta telefono finkoa
Webgunea (hostinga + domeinua)	15 €/hilabete	Webgunearen kudeaketa eta domeinua
Langileen soldata finkoak	1.500 €/hilabete	Nutrizionistak eta tailer arduradunak (2 pertsona)
Hasierako ekipamendu digitala	1.000 € (beherako inbertsioa)	Ordenagailuak, kamera, mikrofonoak, argiztapena
Tailer ikastaroetan erabilitako materialak	200 €/tailer	Elikagaiak, jolasak, material didaktikoa
Garraio eta irteera gastuak	50 €/irteera	Autobusa edo furgioa tailer edo jarduera berezietarako
Marketin-kanpainak	100 €/hilabete	Sare sozialak, hormairudiak, publizitatea
Prestakuntza eta bestelako ikastaroak	300 € (hasierako kostua)	Lehen sorospenak, higiene eta segurtasun prestakuntza

